

## Prentsa-oharra

### IK4-TEKNIKERek gailu berri bat garatu du anguluneurrietarako sistemak kalibratzeko

- ▶ *Gailu berriak aurrerapen nabarmenak ekarri dizkie hainbat sektoreri; hala nola, industriari, makina-erremintari, automobilgintzari, zehaztapen-ingeniaritzari edo eremu zientifikoari*
- ▶ *Metrologiaren eremuko erakunde garrantzitsuak elkartu dituen “EMRP SIB58 Angles” proiektuaren barruan dago kokatuta garapena*
- ▶ *Ekipoen prestazioak nabarmen hobetzea ahalbidetuko die anguluei*

(Eibar, 2016eko azaroaren 3a).- Jarduera zientifikoa eta industrialia gauzatzeko oinarrizko alderdia da metrologia. Horregatik, industria-ehundurak neurketak egiteko tresna zorrotzak behar ditu gaur egun, teknologia berritzaileen garapenean aurrera egin ahal izateko. Zehazki, ezinbestekoa da zehaztapen oso handiko ekipoen angulu-kalibrazioari zuzendutako ekipoen eta prozeduren lorpenean ikertzea.

Erronka horren aurrean irtenbideak emateko, zehaztapen handiko angulu txikiak sortzeko gailu berria garatu du IK4-TEKNIKERek, eta aurrerapen nabarmenak ekarri dizkie hainbat sektoreri; hala nola, industriari, makina-erremintari, automobilgintzari, zehaztapen-ingeniaritzari edo eremu zientifikoari.

“EMRP SIB58 Angles” europar proiektuaren esparruan garatu da gailu berri hori. 2013an hasi zen aipatu proiektua, espazio komun bat sortzeko xedez. Bertan, sektorerako irtenbide berritzaileetan bat egiten duten ezagutzak partekatu dituzte metrologiaren eremuko hainbat erakundek.

Euskal zentro teknologikoak garatu duen angulu-sorgailuak, batetik, anguluaren jarrera zehaztasun handiz ezagutzea ahalbidetzen du, neurtzeko zenbait sistema optiko baitaramatza sartuta. Eta, bestetik, beste ekipo batzuek xede berberarekin erabiltzen dituzten beso-

mekanismoak ordezkatzeko dituzten mekanismo malguak dauzka sistemak, horren neurria nabarmen murriztuz eta eramangarritasuna erraztuz horrela, in situ egin ahal izateko kalibrazio oso zehatzak.

Espainiako Metrologiako Zentroa (CEM) karakterizazio-prozesua egiten ari da ekipoan, dituen prestazio zorrotzak direla-eta.

#### **IK4-TEKNIKER, “EMRP SIB58 Angles” proiektu europarreko protagonista gailena**

IK4-TEKNIKERek angelu txikien sorgailua garatu du, “EMRP SIB58 Angles” proiektu europarraren barruan. Gailuaren xedea da angelu lauaren NZ (Nazioarteko Sistema) unitatearen trazabilitatea eta hedapena bermatzea egon daitezkeen eskari-maila guztietan (partikulen azeleragailuetan eta elektroi librezko laserren instalazioetan egindako goi-mailako lanetik hasi eta ezarpen industrialetaraino).

Euskal zentro teknologikoarekin batera, nazioarteko hainbat erakundek hartu dute parte europar proiektu horretan; besteak beste, Espainiako Metrologia Zentroak (CEM), Physikalisch-Technische Bundesanstalt-ek (PTB), Fagorrek, Ume-Tubitak-ek, Czech Metrology Institute-k (CMI), Helmholtz Zentrum Berlinek (HZB), Möller-Wedel Optical International-ek (MWO), Mikes/VTTk, Instituto Nazionale di Ricerca Metrologica-k (INRIM) edo LNE frantziarrak.

Zehaztasun handiko angeluen aipatu sorgailua garatzeaz gain, ziurgabetasun oso gutxiko (segundoko, 0,5 arc-etik beherako) auto-kolimatzaile eta kodetzaile angeluarren kalibratze prozedura eta ekipo berriak bilatzeari egon da zuzenduta proiektua.

Elkarrekin egindako lanak, era berean, beste arlo batzuetan ikertzeko balio izan du; horien artean, formen neurketa, eskala luzeko neurketa edo ezarpen industrialak daude.

Gero eta ohikoagoak dira angelu-neurketarako sistemekin hornitutako tresnak, eta agerian jartzen dute angelu-metrologiaren eremuan eta ekipoen kalibratzean berrikuntzak egiteko beharra.

Hortaz, fabrikatzaileek, gaitasun berri horiekin, ekipoen prestazioak nabarmen hobetzea espero da, horrela, ekipo zehatzagoak eskaini ahal izan ditzaten.

#### IK4-TEKNIKERi buruz

IK4-TEKNIKERek 30 urtetik gorako esperientzia du teknologia aplikatuan eta teknologia hori enpresara transferitzen, eta espezializazio-maila handia lortu du lau alor handitan (fabrikazio aurreratua, gainazal-ingeniaritza, produktu-ingeniaritza eta IKTak). Horri esker, gaitasuna du bere abangoardiako teknologia bezeroen beharren zerbitzura jartzeko.

#### Informazio gehiago

---

////////////////////////////////////

**IK4-TEKNIKER | Itziar Cenoz**

Itziar.cenoz@tekniker.es | tel.: 943 256 929

////////////////////////////////////

**GUK | Javier Urtasun**

urtasun@guk.es | tel.: 637 273 728